

Txostena, Nafarroako Foru Komunitatean ezarritako Arte Plastikoak eta Diseinuko zenbait tituluren curriculumak aldatzeko foru dekretuaren proiektua prestatu beharrez, prozedura hasteko alde aurreko kontsulta publikoan izandako parte-hartzearen gainean

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legean ezartzen den bezalaxe, herritar guztiek dute eskubidea egiazki eta benetan parte hartzeko plan, programa edo izaera orokorreko xedapenetan, baita administrazio prozeduretan ere, horrela erabakitzen delarik.

Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoaren 6. artikuluan xedatzen denari jarraikiz, eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 47. artikuluan aurreikusten diren eskumenak erabiliz, Lanbide Heziketako tituluen irakaskuntza komunak onetsi ondoan, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak curriculumaren garapena zehaztu behar du Foru Komunitatearen esparruan. Hezkuntza sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuan ezarritakotik ondorioztatzen denez (hala adierazten da 8. artikuluan), hezkuntza administrazioek behar diren curriculumak ezarriko dituzte, aipatutako errege dekretuan eta Lanbide Heziketako ikasketak erregulatzen dituzten arauetan xedatutakoa errespetatuz. Orobat adierazten du hezkuntza administrazioek kontuan hartuko dutela, lanbide heziketako irakaskuntzen curriculumak ezartzean, beren eskumeneko lurraldearen errealitate sozio-ekonomikoa eta garapen ekonomiko eta sozialaren arloko ustekizunak, irakaskuntzek bat egin dezaten aldiro beren inguruneko gizarte eta ekoizpen sektoreen kualifikazio premiekin.

Horrela, Curriculum diseinuak behar den prestasunaz egokitu beharko dira gure Komunitateko ekoizpen sistemaren eta zerbitzuak emateko sistemaren berezko berezitasunetara; horretarako sartu beharko dira eskariarekin bat egiten duen eta Nafarroari egokituta dagoen lanbide kualifikaziora bideratzen duten elementuak.


Foru dekretu honen bidez aldatu egiten dira curriculumetako ordutegi-taulak eta zenbait alderdi honako tituluak hauek lortzeko heziketa zikloetan: Produktu Grafiko Inprimatuari Laguntzeko Arte Plastikoetako eta Diseinuko teknikaria, 2015eko abenduaren

16ko 270/2015 FORU DEKRETUAK garatua, Nafarroako Foru Komunitatean Produktu Grafiko Inprimatuari Laguntzeko Arte Plastikoetako eta Diseinuko teknikariaren tituluaren egitura eta curriculumak ezarri baitzituen; Argazkigintzako Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi mailako teknikaria, 2013ko uztailaren 31ko 53/2013 FORU DEKRETUAK garatua, Nafarroako Foru Komunitatean Argazkigintzako Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi mailako teknikari tituluaren egitura eta curriculumak ezarri baitzituen, Arte plastikoen eta diseinuaren arloko lanbide ikasketen antolamendu orokorra ezartzen duen maiatzaren 4ko 596/2007 Errege Dekretuaren 13. artikulua aplikatuz eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 47. artikuluan Nafarroako Foru Komunitateari arlo honetan ematen zaizkion eskumenak erabiliz.

Horregatik, Hezkuntza Departamentuak aldez aurreko kontsulta abiarazi zuen, Nafarroako Foru Komunitatean ezarritako Lanbide Heziketako zenbait tituluren curriculumak aldatzeko foru dekretuaren proiektua prestatu beharrez. Aldez aurreko kontsulta gardentasunaren atarian argitaratu zen eta posta elektronikoki bat gaitu zen, inacuali@navarra.es, komunikazio bide gisa. Ekarpenak jasotzeko 15 egunak iraganik, prozesua itxi da bakarrik ere jaso gabe.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 6an.

Lanbide Heziketaren Zerbitzuko zuzendaria


Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra
Hezkuntza / Educación
Lanbide Heziketaren Zerbitzua
Servicio de Formación Profesional

Esther Monterrubio Ariznabarreta